

---

## **KANALAK**

Gure produktua, adin guztietako pertsoneri zuzenduta egongo da, gaur egun, mundu mailan denei eragiten digun jarduera bat delako. Gure helburua edukiontzi mota honekin, ingurunea zaintzeaz eta hobetzeaz gain, jende guztiari kontzientzia ahal izatea da (bai beraiei pentsarazteko eta bai dakartzan onurak edo desabantailak ikustarazteko). Jeneralean, produktu hau pertsona guztiek erosi ditzakete, izan ere, suertatu daitezkeen edozein arazori aurre egiteko baliabide bat sortuko dugulako. Beraz, kanal hauek erabiltzea erabaki dugu:

**Komunikazio-kanalak:** Gure produktua aurkezteko publizitatea erabiliko dugu. Iragarkiak gehienetan edo telebistan agertzea oso garestiak direnez, gaur egungo teknika berri batekin saiatuko gara; sare sozialak. Hauen bidez ikusgarriak diren kontu eta profilei gure produktua bidali eta azalduko diegu, honen ezaugarriez berri emanaz eta dakartzan onurak transmitituz. Beraz, haiek kontuetako jarraitzaileei erakustean, zortearekin gure produktua erakargarria ikusteko era izango da. Erabiliko ditugun sare sozialak: Instagram, Facebook, WhatsApp eta twitter izango dira gaur egun gehien erabiltzenak direlako.

**Banaketa-kanalak:** Dendak eta komertzioak hornitzeko mezularitza-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batekin akordio batera iritsiko gara, igorpenak prezio baxuan egin ahal izateko. Komertzialak ere kontratatuko ditugu denda eta komertzio fisikoei produktuaren berri emateko.

**Salmenta-kanalak:** Gure edukiontzi makina "online" salduko dugu enpresa bezala, baino denda fisikoei ere eskainiko diegu (Carrefour, FNAC...) nahi izanez gero, gure produktua bezero gehiagorengana errazago iristeko. Kanpaina bereziak ere egingo ditugu, hirietako erdigunetan stand-ak jarritz, produktua probatu eta hobetu ezagutu ahal izateko.